

ortzadar

larunbata, 2014ko ekainaren 28a. 362 zenbakia

noticiasdealava.com

euskal kulturaren kolore guztia



'TOUR' BAT TOUREREN AUZOTIK

Jon Arretxe idazleak fikzioa eta errealtatea uztartzen ditu Bilboko San Frantziskon

— 4-5 orrialdeak —

PALAHNIUKEN 'BORROKA KLUBA'

Txalapartaren eskutik, jada irakur daiteke 'Fight Club' eleberria euskaraz

— 6 orrialdea —

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

JON ARRETXE

IDAZLEA


“Lehenengo liburua idatzi nuenean banekien saga bat izango zela, bestela Toure hilko nuen”

‘Hutsaren Itzalak’ argitara atera du egile bizkaitarrak. Toure detektibearen sagako hirugarren eleberria dugu honakoa

 LUXUE RAZKIN



Bilboko San Frantzisko auzoan bizi direnen “gogortasun hori” islatu du Arretxe, JOSE MARI MARTINEZ



ELEBERRI beltzen elementuak ondo txertatu ditu Jon Arretxe (Basauri, 1963) beste behin ere. Toure detektibearen sagako hirugarren eleberria argitaratu du: *Hutsaren Itzalak*. Sagako beste eleberriekin alderatuz gero (19 kamera eta 612 euro), nobela gogorrago bat aurkituko du irakurleak honetan. Toure detektibearen ildo nagusiari heltzen dio berriz ere, Bilboko San Frantzisko auzoko errealtatean kokatuz. Umorea dosi txikiagoan jasoko du, gordintasunaren alde apustua egin baitu idazleak. Hortaz, kontakizun gogorragoa izango du publikoak irakurgai: “Saga bat da baina hirurak oso desberdinak egin nahi izan ditut”, adierazi du Jon Arretxe.

Nobela beltz interesgarri bat egitea izan du helburu idazleak. “Fikzioa da eta irakurleari istorio interesgarri bat eskaintzea bilatu dut; harrapatzen duena, harritzen duena, batzuetan barre eragiten diona ere bai”. Bide batez, bere asmoa San Frantzisko auzoa nolako den erakustea izan

da: “Euren bizitzaren gogortasun hori islatu dut; kritika soziala oso klasikoa da nobela beltzean”.

Oro har, sagak bi berezitasun nagusi ditu: alde batetik, pertsonaia nagusia, Toure, gainontzeko detektibeekin alderatuz gero, “nahiko desberdina” delako. Protagonistak arazo larriak gainditu behar ditu lehenengo nobelatik, baina idazleak dio oztopo horiek guztiak gainditzen dituela bere afrikartasunari, positibotasunari eta umoreari esker. Baina Arretxe argitzen du azken honetan gainezka eginda dagoela protagonista: “Alde guztietatik hartzen ditu ostiak, krisi hirukoitzak dauka: denon krisia, San Frantzisko auzoko krisia eta berea pertsonala”. Toure detektibearen figura azpimarratu nahi izan du: “Ez da ohikoa”.

Bestetik, kokagunea ere bada sagaren berezitasunetako bat, hots, San Frantzisko auzoa. Idazlearen esanetan, Bilboko jende askok ez du eza-gutzen eta eleberriak berak, fikzioaren bidez, ezagutzeko aukera eman

